Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

**CARLOS SANTAMARÍA ZENTROKO ARAUTEGIA**

(Gipuzkoako Campuseko Batzarrak onartua 2011ko uztailaren 14ko bilkuran eta aldatua 2012ko urriaren 29ko bilkuran)

**ZIOEN AZALPENA**

Carlos Santamaría Zentroa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (aurrerantzean UPV/EHU edo "Unibertsitatea") Gipuzkoako Campuseko eraikin bat da, eta ikaskuntza, irakaskuntza eta ikerketa babesteko baliabide eta zerbitzu ugari daude bertan. Zehazki, Zentroan honako baliabide eta zerbitzu hauek daude:

- <u>Gipuzkoako Campuseko Liburutegia:</u> Gipuzkoako Campuseko zerbitzu eta baliabide bibliografiko eta dokumental gehienak bilduz, ikaskuntza, irakaskuntza eta ikerketarako baliabide-zentroa da.

  Bertako funtzio anitzeko ekipamenduari eta zerbitzuei esker, Campuseko ikerketa-jardueraren eta jarduera akademikoaren funtsezko erreferentzia da.

- <u>Ikerketa eremuak:</u> batetik, Gipuzkoako Campuseko Ikerketa Institutuen eta Katedren egoitza iraunkorrak daude, eta bestetik, aipaturiko egiturek eta Ikerketa Taldeek behin-behinean erabil ditzaketen guneak. Bigarren kasu horretan, ebaluazioak egiten dira aldian behin.

**REGLAMENTO DEL CENTRO CARLOS SANTAMARÍA**

(Aprobado por la Junta de Campus de Gipuzkoa en su sesión de 14 de julio de 2011 y modificado el 29 de octubre de 2012)

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

El Centro Carlos Santamaría es un edificio del Campus de Gipuzkoa de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante, UPV/EHU o "la Universidad") en el que se concentran múltiples recursos y servicios de apoyo al aprendizaje, la docencia y la investigación. En concreto, el Centro da cabida a:

- <u>La Biblioteca del Campus de Gipuzkoa,</u> la cual aglutina la mayoría de los servicios y recursos bibliográficos y documentales del Campus de Gipuzkoa, se configura como un centro de recursos para el aprendizaje, la docencia y la investigación.
  Gracias al equipamiento multifuncional y conjunto de prestaciones con los que cuenta, se constituye en punto de referencia fundamental de la actividad investigadora y académica del Campus.

- <u>Espacios de Investigación</u> distinguiendo, por un lado, espacios para sedes permanentes de Institutos Universitarios de Investigación y Cátedras del Campus de Gipuzkoa y, por otro, espacios de los que, tanto las citadas estructuras como Grupos de Investigación, se pueden valer de manera temporal y estando sujetos a evaluación periódica.

Carlos Santamaría Zentroa Gipuzkoako Campuseko Gizarte Zientziekin, Zientzia Juridikoekin eta Giza Zientziekin erlazionatutako ikerketa-jardueren erreferentzia-gune izatea nahi du Unibertsitateak eta, horregatik, eraikin honetan bildu nahi dira arlo horietako Campuseko ikertzaile nagusiak. Hala, ikertzaileen arteko sinergiak ahalbidetuko dira, eta ikerketa-jarduera bultzatuko da.

Siendo deseo de la Universidad que el Centro Carlos Santamaría se convierta en un foco de referencia de las actividades investigadoras vinculadas a las Ciencias Sociales, Ciencias Jurídicas y Humanidades del Campus de Gipuzkoa, se pretende concentrar en este edificio a investigadores relevantes de las citadas áreas del Campus, posibilitando la creación de sinergias entre los mismos y el impulso de la actividad investigadora.

- Campuseko zerbitzuak eta prestakuntza, hobekuntza eta berrikuntzarako baliabideak: Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruarekin bat egiteko prozesuaren ondorioz, Unibertsitatea ahalegin handia egiten ari da prestakuntza, hobekuntza eta berrikuntza bultzatzearren, batik bat irakaskuntzaren arloan. Horregatik, hainbat baliabide eta zerbitzuri esker, hala nola Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua, Kalitate Katedra, Unibertsitateko Irakaskuntza Berritzailerako Baliabideen Tailerra eta Hizkuntza Laborategi bat, Carlos Santamaria Zentroa gune garrantzitsua izango da, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza lortze aldera.

- Servicios del Campus y recursos para la formación, la mejora y la innovación. A raíz del proceso de convergencia con el Espacio Europeo de Educación Superior, la Universidad está realizando un gran esfuerzo en aras a impulsar la formación, la mejora y la innovación, sobre todo, en la docencia universitaria. Por ello, recursos y servicios tales como el Servicio de Asesoramiento Educativo, la Cátedra de Calidad, el Taller de Recursos para la docencia universitaria innovadora y un Laboratorio de idiomas, harán del Centro Carlos Santamaría un importante núcleo con el fin de lograr la mejora continua y la renovación.

Laburbilduz, unibertsitate-komunitatearen topagune eta bizileku pribilegiatu bilakatu nahi du Carlos Santamaría Zentroak eta, era berean, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren aldaketa garrantzitsuen gertaleku eta motor ere izan nahi du.

En suma, el Centro Carlos Santamaría aspira a convertirse en un lugar privilegiado de encuentro y vida de la comunidad universitaria, y asimismo escenario y motor de importantes cambios en la práctica docente e investigadora.

Azkenik, UPV/EHUko Estatutuak onartzen dituen otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuko 124.2 d) artikuluaren arabera, Campusen eginkizuna da bere eremuan unibertsitateko kide guztiek erabiltzeko diren baliabide eta azpiegiturak eta irakaskuntzan eta ikerketan erabiltzekoak direnak kudeatzea. Gipuzkoako Campuseko Carlos Santamaría Zentroa azpiegitura horietako bat da, eta hortaz, komenigarritzat jo da Arautegi hau egitea, Zentroaren funtzionamendurako eta bertako erabiltzaileekiko harremanetarako erreferentzia-esparrua ezartzeko.

Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako Campuseko errektoreordeak proposatuta, eta 2011ko […]aren […](e)an egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, Gipuzkoako Campuseko Batzarrak honako hau onartu eta xedatu du, UPV/EHUko Estatutuetako 194.2 h) artikuluak eta Gipuzkoako Campuseko Batzarraren Arautegia onartzen duen UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2005eko azaroaren 3ko Ebazpeneko 9.1 h) artikuluak emandako eskumena baliatuz

Finalmente, en función de lo establecido en el artículo 124.2 d) del Decreto 17/2011, de 15 de febrero, por el que se aprueban los Estatutos de UPV/EHU, es competencia de los Campus gestionar los recursos e infraestructuras de uso compartido y de apoyo a la docencia e investigación existentes en su ámbito. El Centro Carlos Santamaría es precisamente una de tales infraestructuras del Campus de Gipuzkoa, por lo que se ha estimado oportuno elaborar el presente Reglamento con el fin de crear un marco de referencia para el funcionamiento del mismo y las relaciones con sus diferentes usuarios.

Por todo ello, a propuesta de la vicerrectora de Campus de Gipuzkoa, previa deliberación y aprobación en su reunión celebrada el día […] de […] de 2011, la Junta de Campus de Gipuzkoa, en el ejercicio de la competencia que le otorga el artículo 194.2ºh) de los Estatutos de UPV/EHU y el artículo 9.1ºh) de la Resolución de 3 de noviembre de 2005, del secretario general de UPV/EHU, por la que se aprueba el Reglamento de la Junta de Campus de Gipuzkoa, aprueba y dispone el siguiente

## CARLOS SANTAMARÍA ZENTROKO ARAUTEGIA

### I. TITULUA.- ZENTROAREN KOKALEKUA ETA HELBURUA

**1. artikulua**

1. Carlos Santamaría Zentroa UPV/EHUko Gipuzkoako Campusean dagoen eraikina da eta ikaskuntza, irakaskuntza eta ikerketa babesteko baliabide eta zerbitzu ugari daude bertan.

2. Carlos Santamaría Zentroaren helbidea honako hau da: Elhuyar plaza, 2, 20018-

## REGLAMENTO DEL CENTRO CARLOS SANTAMARÍA

### TÍTULO I.- UBICACIÓN Y OBJETO DEL CENTRO

**Artículo.- 1**

1. El Centro Carlos Santamaría es un edificio integrado en el Campus de Gipuzkoa de UPV/EHU, en el que se concentran recursos y servicios de apoyo al aprendizaje, la docencia y la investigación.

2. Está situado en Plaza Elhuyar, 2, 20018, de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

Donostia (Gipuzkoa).

3. Zentroaren erabilerak eta funtzionamenduak Arautegi honekin bat etorri beharko dute eta, hala dagokionean, aplikagarriak diren unibertsitate- eta administrazio-arauekin.

4. Arautegi honetan, Carlos Santamaría Zentroa aipatu behar denean, izen osoa edo “Zentro” terminoa erabiliko dira.

3. El régimen de su utilización y funcionamiento se ajustará a lo previsto en este Reglamento y, en su caso, a la normativa universitaria y administrativa que sea de aplicación.

4. A lo largo de este Reglamento se hará referencia al Centro Carlos Santamaría de manera indistinta con su denominación completa o con el término el “Centro”.

**2. artikulua**

Carlos Santamaría Zentroan honako baliabide eta zerbitzu hauek daude:

1. Gipuzkoako Campuseko Liburutegia
2. Ikerketarako eremuak.
3. Campuseko zerbitzuak eta prestakuntza, hobekuntza eta berrikuntzarako baliabideak.
4. Beste gune batzuk.
5. Guztientzako guneak.

**Artículo.- 2**

El Centro Carlos Santamaría alberga:

1. La Biblioteca del Campus de Gipuzkoa.
2. Espacios destinados a Investigación.
3. Servicios del Campus y recursos para la formación, la mejora y la innovación.
4. Otros espacios.
5. Zonas Comunes.

**3. artikulua**

Arautegi honen esparruan, Carlos Santamaría Zentroan kokatuko diren eduki eta jarduera berriak definitu ahal izango dira.

**Artículo.- 3**

En el marco de la presente normativa se podrán definir nuevos destinos, contenidos y actividades para su ubicación en el Centro Carlos Santamaría.

**II. TITULUA.- GUNEEN ANTOLAKUNTZA ETA ARAUBIDEA**

**TÍTULO II.- ORGANIZACIÓN DE ESPACIOS Y SUS REGÍMENES**

*LEHENENGO KAPITULUA.- GIPUZKOAKO CAMPUSEKO LIBURUTEGIA*

*CAPÍTULO PRIMERO.- BIBLIOTECA DEL CAMPUS DE GIPUZKOA*

**4. artikulua**

Gipuzkoako Campuseko Liburutegiak Campuseko Fakultateetako eta Eskoletako zerbitzu eta baliabide bibliografikoak eta dokumentalak biltzen ditu, Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskolakoak, Donostiako Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Irakasgunekoak eta Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolakoak izan ezik. Gainera, Gipuzkoako

**Artículo.- 4**

La Biblioteca del Campus de Gipuzkoa acoge los servicios y recursos bibliográficos y documentales de las Facultades y Escuelas del Campus de Gipuzkoa (excepto los de la E.U. de Enfermería de Donostia-San Sebastián, la Unidad Docente de la Facultad de Medicina y Odontología en Donostia-San Sebastián y la E.U. de Ingeniería Técnica Industrial del Eibar), así como los de los Institutos Universitarios de

Campuseko Ikerketa Institutuetako eta nortasun juridikorik ez duten beste egitura eta erakunde batzuetako (katedrak) zerbitzu eta baliabide bibliografikoak eta dokumentalak ere biltzen ditu.

Bestalde, Liburutegiak honako ekipamendu hauek ditu, besteak beste: oinarrizko bibliografiaren eta bibliografia espezializatuaren areto handiak, isilik irakurtzeko eremuak, taldeko lanak egiteko aretoak, banakako ikerkuntza-guneak (*carrel* delakoak), irakurketa-gune informalak, mediateka, informazio elektronikoko baliabideen aretoa, aurkezpenetarako eta prestakuntzarako aretoak, kopiagintza-zerbitzua eta dokumentuak erabiltzeko zerbitzua.

Investigación y otras estructuras y entidades universitarias sin personalidad jurídica (cátedras) del Campus de Gipuzkoa ubicadas en el mismo.

Por otro lado, la Biblioteca dispone, entre otros, de amplias salas de bibliografía básica y especializada, zonas de lectura en silencio, salas de trabajo en grupo, carrels individuales para investigadores, puestos de lectura informal, mediateca, sala de recursos de información electrónica, salas de presentaciones y formación, servicio de reprografía, así como servicio de acceso al documento.

**5. artikulua**

Gipuzkoako Campuseko Liburutegiari dagokionez, Arautegi honetako aurreikuspenak aplikatzeko garaian, 1994ko otsailaren 4ko Unibertsitateko Gobernu Batzarrean onartutako UPV/EHUko Unibertsitate Liburutegiko Arautegia edo etorkizunean hori ordezka dezaketen xedapenak errespetatuko dira. Era berean, Unibertsitateko Liburutegien arloko eskumenak dituen Errektoreordetzak ezarritako funtzionamendu-araubidea ere bete beharko du Gipuzkoako Campuseko Liburutegiak.

**Artículo.- 5**

Las previsiones del presente Reglamento se aplicarán, en el caso de la Biblioteca del Campus de Gipuzkoa, sin perjuicio de lo establecido por el Reglamento de la Biblioteca Universitaria de UPV/EHU, aprobado por la Junta de Gobierno de la Universidad de 4 de febrero de 1994, o disposición que le sustituya en un futuro. Asimismo, la Biblioteca del Campus de Gipuzkoa estará sujeta al régimen de funcionamiento que sea establecido por el Vicerrectorado competente en materia de “Biblioteca Universitaria”.

*BIGARREN KAPITULUA.- IKERKETARAKO EREMUAK*

*CAPÍTULO SEGUNDO.- ESPACIOS DESTINADOS A INVESTIGACIÓN*

**6. artikulua**

Bi motatako ikerketarako eremuak daude:

- Modu iraunkorrean esleitzen direnak: Gizarte Zientziekin, Zientzia Juridikoekin eta Giza Zientziekin erlazionatutako Gipuzkoako Campuseko Ikerketa Institutuen eta nortasun juridikorik ez duten beste egitura eta erakunde batzuen (katedrak)

**Artículo.- 6**

Los espacios previstos para la Investigación son de dos tipos:

- De asignación permanente: sedes de Institutos Universitarios de Investigación y otras estructuras y entidades universitarias sin personalidad jurídica (cátedras) del Campus de Gipuzkoa vinculados a las

egoitzak dira.

- Behin-behinean erabil daitezkeenak: Arestian aipatu diren erakundeek eta egiturek (egoitza Gipuzkoako Campusean edo Gipuzkoako Campusetik kanpo dutenek) eta Gizarte Zientziekin, Zientzia Juridikoekin eta Giza Zientziekin erlazionatutako Ikerketa Taldeek behin-behinean erabil ditzaketen guneak. Kasu horretan, ekoizpenaren eta emaitzen ebaluazioa egiten da.

Ciencias Sociales, Ciencias Jurídicas y Humanidades.

- De autorización de uso temporal: espacios de los que pueden valerse las arriba citadas entidades y estructuras, tengan o no sede en el Campus de Gipuzkoa, y, además, Grupos de Investigación vinculados a las Ciencias Sociales, Ciencias Jurídicas y Humanidades, por un tiempo limitado y con una evaluación de su producción y resultados.

**7. artikulua**

Ikerketa-eremuak esleitzeko garaian, 2008ko uztailaren 15ean Gipuzkoako Campuseko Batzarrak onartu zuen *UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren menpe dauden eraikinetan espazioak esleitzeko Arautegian* ezarritakoa beteko da.

**Artículo.- 7**

La adjudicación de espacios destinados a Investigación se realizará en virtud de lo establecido en el "*Reglamento sobre asignación de espacios en edificios dependientes del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa de UPV/EHU*", aprobado por la Junta de Campus de Gipuzkoa de 15 de julio de 2008.

**8. artikulua**

Ikerketarako eremuak behin-behinean erabiltzeko baimenaren gehieneko iraupena sei urtekoa izango da, hasiera batean, eta baimenaren iraupenaren erdia igaro ondoren, bitarteko ebaluazioa egingo da. Azken ebaluazioan lortutako emaitzen arabera eta erabiltze bakoitzarekin izenpetutako konpromisoen arabera, erabilera-baimena luzatu ahal izango da.

Era berean, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak eta interesdunek izenpetutako Konpromiso-Dokumentuak baldintzatuko du aipaturiko baimena. Konpromisoen Dokumentuan honako hauek zehaztuko dira: a) alderdien betebeharrak, b) ikerketa-eremua erabili nahi duen egiturak edo entitateak bete beharreko helburu zenbagarriak eta egiaztagarriak, eta c) egiturak edo entitateak

**Artículo.- 8**

La autorización de utilización temporal de los espacios destinados a Investigación tendrá una duración inicial máxima de seis años, con una evaluación intermedia una vez trascurrido la mitad del tiempo para el que se ha concedido la autorización. La permanencia en el Centro dependerá de los resultados que se obtengan en la evaluación final y los compromisos suscritos con cada usuario.

Asimismo, dicha autorización estará condicionada a la suscripción entre el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa y los interesados de un "Documento de Compromiso" que contendrá: a) las obligaciones a asumir por las partes, b) la serie de objetivos cuantificables y contrastables a cumplir por la estructura o entidad interesada en contar con el espacio, y c) la manera de realizar un seguimiento y

hartutako konpromisoen jarraipena eta ebaluazioa egiteko modua.

evaluación de los compromisos asumidos por la estructura o entidad.

*HIRUGARREN KAPITULUA.- CAMPUSEKO ZERBITZUAK ETA PRESTAKUNTZA, HOBEKUNTZA ETA BERRIKUNTZARAKO BALIABIDEAK*

*CAPÍTULO TERCERO.- SERVICIOS DEL CAMPUS Y RECURSOS PARA LA FORMACIÓN, LA MEJORA Y LA INNOVACIÓN*

**9. artikulua**

Carlos Santamaría Zentroan dauden Campuseko zerbitzuak eta prestakuntza-, hobekuntza- eta berrikuntza-premia berriei erantzuteko baliabideak honako hauek dira:

- Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzua.
- Kalitate Katedra.
- Unibertsitateko Irakaskuntza Berritzailerako Baliabideen Tailerra.
- Hizkuntza Laborategia.
- Entzunaretoa, erakusketa- eta topaketa-aretoa, ikasgelak, mintegiak, ikasketa-guneak, bilera-gelak, bideokonferentzia-gelak, eta balio anitzeko aretoak.

**Artículo.- 9**

Los servicios del Campus y los recursos dirigidos a dar respuesta a las nuevas necesidades de formación, mejora e innovación ubicados en el Centro Carlos Santamaría son:

- El Servicio de Asesoramiento Educativo.
- La Cátedra de Calidad.
- El Taller de Recursos para la docencia universitaria innovadora.
- El Laboratorio de Idiomas.
- El Auditorio, la sala de exposiciones y encuentros, aulas, seminarios, espacios de estudio, salas de reuniones, salas de videoconferencia y salas polivalentes.

**10. artikulua**

Arautegi honetan aurreikusi ez den guztirako, Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzaren arloko eskumenak dituen Errektoreordetzaren menpe dauden Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak eta Kalitate Katedrak beren funtzionamendu-araudia bete beharko dute.

**Artículo.- 10**

El Servicio de Asesoramiento Educativo y la Cátedra de Calidad, dependientes del Vicerrectorado competente del área de “calidad e innovación docente”, se regirán, en lo no previsto por el presente Reglamento, por su propio régimen de funcionamiento.

**11. artikulua**

Hizkuntza Laborategia eta Unibertsitateko Irakaskuntza Berritzailerako Baliabideen Tailerra Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak kudeatuko ditu, Campuseko zerbitzu horien arduraduna Errektoreordetza baita. Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza beste Errektoreordetza batzuekin elkarlanean jardun daiteke, unibertsitate-komunitatearen intereseko programak garatzeko.

Hala dagokionean, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak Carlos Santamaría Zentroko

**Artículo.- 11**

El Laboratorio de Idiomas y el Taller de Recursos para la docencia universitaria innovadora, serán gestionados desde el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, responsable de tales servicios del Campus. Este último podrá coordinarse con otros vicerrectorados con el fin de desarrollar programas de interés para la comunidad universitaria.

El Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa podrá, en su caso, delegar su cometido en

organo baten esku utzi ditzake bere zereginak.

**12. artikulua**

Entzunaretoaren, erakusketa- eta topaketa-aretoaren, eta gainerako ikasgela, mintegi, ikasketa-gune, bilera-gela, bideokonferentzia-gela eta balio anitzeko aretoen araubideari dagokionez, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak ezarritako funtzionamendu-irizpideak beteko dituzte, edo hala dagokionean, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren zereginak bere gain hartu dituen Carlos Santamaría Zentroko organoak ezarritako funtzionamendu-irizpideak.

Unibertsitate-komunitateak zein Unibertsitatetik kanpoko nortasun juridikoa duten eragile sozio-ekonomikoek Carlos Santamaría Zentroko guneak irakaskuntza-xedeekin edo beste xede batzuekin (unibertsitatekoak zein unibertsitatetik kanpokoak) erabiltzeko eskariak egiteko prozedurak ezarriko dira. Nolanahi ere, guneon erabilera-araubideak aplikagarriak diren unibertsitate- eta administrazio-arauak errespetatu beharko ditu, eta baita Gipuzkoako Campuseko Guneen Gida-Planeko oharrak eta irizpideak ere.

**13. artikulua**

Carlos Santamaría Zentroan Campuseko beste zerbitzu eta baliabide batzuk ezarri nahi badira, prestakuntza-, hobekuntza- eta berrikuntza-premia berriei erantzuteko asmoz, ofizioz jardungo da, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren ebazpenaren bidez eta ez da beharrezkoa izango aldez aurretik Arautegi hau aldatzea.

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak dagozkion izapideak jarriko ditu abian, Gipuzkoako Campuseko Batzarrari hartutako erabakiaren berri emateko bere hurrengo

algún órgano del Centro Carlos Santamaría.

**Artículo.- 12**

En cuanto al régimen del Auditorio, la sala de exposiciones y encuentros, y resto de aulas, seminarios, espacios de estudio, salas de reuniones, salas de videoconferencia y salas polivalentes, se regirán por los criterios de funcionamiento que sean establecidos desde el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa o, en su caso, órgano del Centro Carlos Santamaría en quien delegue su cometido.

El Centro Carlos Santamaría contará con procedimientos para la solicitud de uso de espacios tanto para fines docentes como para otros fines (universitarios o no universitarios), y tanto por parte de la comunidad universitaria como por parte de otros agentes socio-económicos con personalidad jurídica propia ajena a la Universidad. En todo caso, el régimen de utilización de estos espacios respetará la normativa universitaria y administrativa que sea de aplicación, así como las indicaciones y criterios establecidos en el Plan Director de Espacios del Campus de Gipuzkoa.

**Artículo.- 13**

La ubicación en el Centro Carlos Santamaría de nuevos servicios del Campus y otros recursos, dirigidos a dar respuesta a las nuevas necesidades de formación, mejora e innovación, se realizará de oficio mediante resolución del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, sin tener que modificar previamente el presente Reglamento.

El Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa pondrá en marcha los trámites necesarios para informar sobre la decisión adoptada a la Junta de Campus de Gipuzkoa en su próxima sesión

bileran eta, hala dagokionean, Arautegi hau aldatzeari ekiteko.

y proceder, en su caso, a la modificación del presente Reglamento.

*LAUGARREN KAPITULUA.- BESTE GUNE BATZUK*

*CAPÍTULO CUARTO.- OTROS ESPACIOS*

**14. artikulua**

Zentroan beste gune batzuk ere egon daitezke, hala nola oparien eta Unibertsitatea sustatzeko produktuen saltokia (EHU Denda). Azken honek beren funtzionamendu-araubidea izango dute.

**Artículo.- 14**

El Centro podrá contar con otros espacios, como un establecimiento de venta de productos para regalo y promoción de la Universidad (EHU Denda), que se regirá por su propio régimen de funcionamiento.

**15. artikulua**

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak baimena eman ahal izango du erabilgarri dauden eraikineko guneak UPV/EHUrako interesgarriak diren beste xede batzuetarako erabiltzeko, eta horretarako, akordioak izenpetu beharko dira Unibertsitateko edo Unibertsitatetik kanpoko eskatzaileekin.

Unibertsitatetik kanpoko erakundeei ordainaren truke eraikineko guneak esklusiboki erabiltzeko baimena ematekotan, 2008ko uztailaren 15eko Gipuzkoako Campuseko Batzarrak onartutako *UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren mende dauden eraikinetan espazioak esleitzeko Arautegiko* 3. ataleko 2. artikuluan ezarritakoa errespetatu beharko da.

**Artículo.- 15**

El Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa podrá determinar el uso de espacios disponibles en el edificio para otros fines que resulten de interés para UPV/EHU en función, en su caso, de acuerdos con los solicitantes, propiamente universitarios o ajenos a la Universidad.

En el supuesto de querer facilitar el uso exclusivo y con contraprestación de espacios a entidades ajenas a la Universidad, se deberá respetar lo establecido en el artículo 2 apartado 3 del "*Reglamento sobre asignación de espacios en edificios dependientes del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa de UPV/EHU"*, aprobado por la Junta de Campus de Gipuzkoa de 15 de julio de 2008.

*BOSGARREN KAPITULUA.- GUZTIENTZAKO GUNEAK*

*CAPÍTULO QUINTO.- ZONAS COMUNES*

**16. artikulua**

Guztientzako guneak, eraikinaren beraren erabilerarekin, ustiapenarekin eta administrazioarekin lotutako guneak dira.

Gune horietako bat Zentroko aparkalekua da eta xede horretarako ezarriko diren funtzionamendu-irizpideak bete beharko ditu.

**Artículo.- 16**

Las zonas comunes son aquellos espacios vinculados al uso, aprovechamiento y administración del propio edificio.

Una de tales zonas es el aparcamiento del Centro que se regirá por los criterios de funcionamiento que sean establecidos al efecto.

**III. TITULUA.- ERAIKINEKO ERABILTZAILEENTZAKO ARAUAK**

**17. artikulua**

Carlos Santamaría Zentroan kokatuta dauden egiturek eta erakundeek Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren eta Zentroko organoen eskakizunak bete beharko dituzte, elkarbizitza-arazorik egon ez dadin.

**18. artikulua**

Erabiltzaile bakoitzari esleitutako guneak Arautegi honetan ezarritako erabileretarako bakarrik erabili ahal izango dira, eta hala dagokionean, guneak esleitzeko ebazpenean eta izenpetutako konpromiso-dokumentuetan ezarritako erabileretarako. Esleitutako guneei beste erabilera bat eman nahi izanez gero, interesdunek Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzarekin hitz egin beharko dute eta Errektoreordetzak erabaki beharko du erabilera aldatzeko baimena ematen duen ala ez.

**19. artikulua**

UPV/EHUk aseguru-polizak kontratatu ditu, eraikinarekin erlazionatutako arriskuetarako eta Unibertsitateko langileek Zentroan gauzatzen dituzten ohiko jarduerekin erlazionatutako arriskuetarako.

UPV/EHUk kontratatutako polizek ez dituzte estaltzen erabilera desegokiagatik edo arduragabeagatik eragindako kalteak eta eragin dituenak konpondu beharko ditu.

**TÍTULO III.- NORMAS COMUNES PARA LOS USUARIOS DEL EDIFICIO**

**Artículo.- 17**

Las diferentes estructuras y entidades ubicadas en el Centro Carlos Santamaría deberán colaborar en aquellas cuestiones que se les requiera desde el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa y los órganos del Centro, en aras a una convivencia armoniosa y satisfactoria para todos.

**Artículo.- 18**

Los espacios propios asignados a cada usuario serán destinados exclusivamente a las actividades consignadas en este Reglamento y, en su caso, la resolución de adjudicación de los espacios y los documentos de compromiso que sean suscritos. En el supuesto de querer realizar algún cambio en el destino de los espacios asignados, los interesados deberán ponerse en contacto previamente con el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, el cual decidirá si autorizar dicho cambio o denegarlo.

**Artículo.- 19**

UPV/EHU tiene contratadas sendas pólizas de seguro que cubren los riesgos relacionados con el edificio y con las actividades ordinarias que el personal de la Universidad realice en el CENTRO.

Los daños y perjuicios producidos por actos de uso y funcionamiento manifiestamente inadecuado o negligente no serán cubiertos por las pólizas contratadas por UPV/EHU y su reparación se imputará al autor o autores de los mismos.

**IV. TITULUA.- ZUZENDARITZA, ADMINISTRAZIO ETA AHOLKULARITZA ORGANOAK**

**20. artikulua**

*Zentroko zuzendaria*

1. Zentroko Zuzendaritza Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren ebazpenaren bidez erabakiko da.

2. Zuzendariak honako eginkizun hauek izango ditu, eraikinaren xedearekin erlazionatuta:

a) Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren, Zentroko Kontseilu Betearazlearen eta eraikineko erabiltzaileen arteko solaskide izatea.

b) Zentroko ohiko kudeaketa- eta administrazio-lanak zuzentzea, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren ildoei jarraituz. Zentroaren gaineko erantzukizuna Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzari dagokio.

c) Zentroan gauzatzen den berrikuntza- eta ikerketa-lanaren eraginkortasuna hobetzeko aukera emango duten ekintzak sustatzea eta Zentroak Unibertsitateko beste Ikerketa Institutu, nortasun juridikorik gabeko egitura edo erakunde (katedrak) eta ikerketa-talde batzuekin harremana izan dezan bultzatzea.

d) Zentroko Kontseilu Betearazlearen akordioak aplikatzea eta betetzea.

e) Zentroan gauzatutako jardueren Urteko Memoria egitea eta Gipuzkoako Campuseko Batzarrean txosten gisa aurkeztea.

f) Zentroko jarduerak sustatzea eta beren etengabeko hobekuntza bultzatzea.

g) Zentro osoan Laneko Arriskuen Prebentziorako baldintzak betetzen direla zaintzea eta dagozkion neurriak hartzea.

**TÍTULO IV.- ÓRGANOS DE DIRECCIÓN, ADMINISTRACIÓN Y ASESORÍA**

**Artículo.- 20**

*El Director o Directora del Centro*

1. La Dirección del Centro se determinará por resolución del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.

2. Las funciones del Director o Directora, relacionadas con el objeto propio del edificio, serán las siguientes:

a) Desarrollar la interlocución entre el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, el Consejo Ejecutivo del Centro y los usuarios del edificio.

b) Dirigir la gestión y administración ordinaria del Centro siguiendo las directrices del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa, sobre el cual recae la última responsabilidad del Centro.

c) Promover todas aquellas acciones que permitan mejorar la eficiencia de la tarea innovadora y de investigación que se lleva a cabo en el Centro y su interacción con otros Institutos Universitarios de Investigación, estructuras o entidades universitarias sin personalidad jurídica (cátedras) y grupos de investigación.

d) Aplicar y ejecutar los acuerdos del Consejo Ejecutivo del Centro.

e) Asumir la elaboración de la Memoria anual de las actividades desarrolladas en el Centro y su presentación como informe en la Junta de Campus de Gipuzkoa.

f) Promocionar las actividades del Centro e impulsar su mejora continua.

g) Velar por las condiciones en materia de prevención de riesgos laborales de todas las dependencias del Centro adoptando las

h) Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak zehaztu ditzakeen gainerako egitekoak.

3. Zentroko zuzendariaren karguagatik ez da ordainduko.

**21. artikulua**

*Zentroko Kontseilu Betearazlea*

1. Zentroko Kontseilu Betearazlearen eginkizuna Zentroko antolakuntza- eta funtzionamendu-gaiak koordinatzea eta ebaztea da eta zehazki:

a) Jarraian adieraziko diren proposamenak zehaztea eta Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzari helaraztea, onar ditzan:

*(a')* Zentroko guneak erabiltzeko irizpideak, aplikagarria den unibertsitate-araudiaren esparruan.

*(b')* Ikerketarako eremuak esleitzeko, erabiltzaileak aukeratzeko eta Unibertsitateko Ikerketa Institutu, nortasun juridikorik gabeko egitura edo erakunde (katedra), Ikerketa Talde edo bestelako erakunde bakoitzarekin ezarriko diren konpromiso-dokumentuetan ezarri beharreko baldintzak zehazteko irizpideak.

*(c')* Guneak esleitzeko, berritzeko edo ezeztatzeko proposamena.

b) Zentroko Batzorde Zientifiko Aholkularia izendatzea.

c) Batzorde Ebaluatzailea izendatzea.

2. Zentroko Kontseilu Betearazleko kideak honako hauek izango dira:

a) Gipuzkoako Campuseko errektoreordea edo hark izendatutako ordezkoa. Kontseiluko buru izango da eta kalitate-botoa izango du.

b) Gipuzkoako Campuseko gerenteordea.

medidas oportunas.

h) Otras que sean definidas por el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.

3. El cargo de Director o Directora del Centro no será remunerado.

**Artículo.- 21**

*El Consejo Ejecutivo del Centro*

1. El Consejo Ejecutivo del Centro tiene por función coordinar y resolver cuestiones organizativas y de funcionamiento del Centro y concretamente:

a) Definir y realizar propuestas al Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa para su aprobación sobre:

*(a')* Los criterios de uso de los espacios del Centro, dentro del marco de la normativa universitaria que sea de aplicación.

*(b')* Los criterios de asignación de espacios destinados a Investigación, la selección de sus usuarios y la determinación de las condiciones que deben figurar en los documentos de compromiso que se establezcan con cada Instituto Universitario de Investigación, estructura o entidad universitaria sin personalidad jurídica (cátedra), Grupo de Investigación u otro tipo de entidad.

*(c')* La adjudicación, renovación o revocación de espacios.

b) Nombrar la Comisión Científica Asesora del Centro.

c) Nombrar la Comisión Evaluadora.

2. El Consejo Ejecutivo del Centro estará integrado por:

a) El Vicerrector o Vicerrectora de Campus de Gipuzkoa o persona en quien éste o ésta delegue, que la preside con voto de calidad.

b) El Vicegerente o Vicegerenta de

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

Campus de Gipuzkoa.

c) Gipuzkoako Campuseko Liburutegiko zuzendaria.

c) El Director o Directora de la Biblioteca de Campus de Gipuzkoa.

d) UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen edo ikertzaileen langile-zerrendako kide diren bi ikertzaile: Bat, Zentroan kokatuta dauden Unibertsitateko Ikerketa Institutuetako eta nortasun juridikorik gabeko egitura eta erakundeetako (katedrak) ordezkari izango da eta bestea, Zentroko guneak erabiltzen dituzten Ikerketa Taldeetako ordezkari izango da.

d) Dos personas investigadoras pertenecientes a la plantilla del Personal Docente e Investigador o Personal Investigador de UPV/EHU: una de ellas será representante de los Institutos Universitarios de Investigación y las estructuras y entidades universitarias sin personalidad jurídica (cátedras) ubicadas en el Centro; y la otra será representante de los Grupos de Investigación con espacios en el Centro.

Bi ikertzaileak hiru urteko agintaldirako aukeratuko dira. Xede horrekin, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak bilera bat antolatuko du hiru urtean behin; bertara, Zentroan kokatuta dauden Unibertsitateko Ikerketa Institutu, nortasun juridikorik gabeko egitura eta erakunde (katedrak) eta Ikerketa Talde bakoitzeko ordezkari bana bilduko da eta beren bi ordezkariak aukeratu beharko dituzte.

Las dos personas investigadoras serán elegidas para un mandato de tres años. A tal efecto, cada tres años el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa convocará una reunión a la que deberá acudir un representante de cada Instituto Universitario de Investigación, estructura y entidad universitaria sin personalidad jurídica (cátedra) y Grupo de Investigación ubicado en el Centro y éstos se encargarán de elegir a sus dos respectivos representantes.

e) Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetzako ordezkari bat.

e) Un o una representante del Vicerrectorado de Calidad e Innovación Docente.

f) Zentroko zuzendaria.

f) El Director o Directora del Centro.

g) Gipuzkoako Campuseko idazkaria.

g) El Secretario o Secretaria de Campus de Gipuzkoa.

3. Zentroko zuzendariak bilerak antolatuko ditu eta bileretako aktak egingo ditu.

3. El Director o Directora de Centro, se encargará de organizar las reuniones y levantar acta de las mismas.

4. Zentroko Kontseilu Betearazleko bileretan

4. En las reuniones del Consejo Ejecutivo del

gonbidatuk parte hartu ahal izango dute, aztertu beharreko gaiaren arabera, gutxienez Kontseilu Betearazleko bi kidek hala eskatu badute.

Centro podrán participar otras personas que sean invitadas en razón del contenido a tratar, a sugerencia de al menos dos de los miembros del Consejo Ejecutivo.

5. Zentroko Kontseilu Betearazlea gutxienez urtean bitan bilduko da, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak deialdia egin ondoren.

5. El Consejo Ejecutivo del Centro se reunirá como mínimo dos veces al año mediante convocatoria del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa.

6. Zentroko Kontseilu Betearazleko kidearen karguagatik ez da ordainduko.

6. El cargo de miembro del Consejo Ejecutivo del Centro no será remunerado.

**22. artikulua ***[1]
*Batzorde Zientifiko Aholkularia*

**Artículo.- 22 ***[1]
*La Comisión Científica Asesora*

1. Batzorde Zientifiko Aholkularia kontsultarako eta aholkularitzarako organoa da eta Zentroko Batzorde Betearazleak izendatzen du. Honako eginkizun hauek ditu:

1. La Comisión Científica Asesora es un órgano de consulta para el asesoramiento, nombrado por la Comisión Ejecutiva del Centro. Tiene por función:

a) Zentroko jardun zientifikoa dinamizatzea jardunaldiak, ikastaroak, mintegiak eta topaketak bultzatuta, horien bidez balioa emateko Carlos Santamaria Zentroan egoitza daukaten unibertsitateko ikerketa institutuei, katedrei eta ikerketa taldeei.

a) Dinamizar la actividad científica del Centro promoviendo jornadas, cursos, seminarios y encuentros que aporten valor a los Institutos Universitarios de Investigación, a Cátedras y a grupos de investigación con sede en el Centro Carlos Santamaría.

b) Zentroko Kontseilu Betearazleari aholku ematea, hala eskatzen duen bakoitzean.

b) Asesorar al Consejo Ejecutivo del Centro en todas aquellas cuestiones que le sean planteadas.

2. Zentroko jarduerekin erlazionatutako arlo zientifikoetan garrantzia duten hiru kide izango ditu gutxienez eta zazpi gehienez. Kide bakoitzaren ospearen eta garrantzi profesionalaren arabera egingo da aukeraketa eta ez, ordea, duten ordezkaritza instituzionalaren arabera.

2. Estará integrada por un mínimo de tres y un máximo de siete personas con relevancia en los ámbitos científicos implicados en las actividades del Centro. Su elección, por tanto, obedece a la relevancia personal y profesional de cada miembro y no a su representatividad institucional.

[1] *Gipuzkoako Campuseko Batzarrak aldatua 2012ko urriaren 29ko bilkuran – Modificado por la Junta de Campus de Gipuzkoa en su sesión de 29 de octubre de 2012.*

3. Azpibatzordeak antolatu daitezke, aurrera eramango diren ekintzen arabera.

3. En su seno podrán organizarse subcomisiones en función de actividades concretas a desarrollar.

4. Batzorde Zientifiko Aholkulariko kidearen karguagatik ez da ordainduko.

4. El cargo de miembro de la Comisión Científica Asesora no será remunerado.

**23. artikulua *[2]**

*Batzorde Ebaluatzailea*

1. Batzorde Ebaluatzailea kontsultarako eta ebaluaziorako organoa da eta Zentroko Batzorde Betearazleak izendatzen du. Honako eginkizun hauek ditu:

a) Unibertsitateko Ikerketa Institutuek, nortasun juridikorik gabeko egiturek eta erakundeek (katedrak), Ikerketa Taldeek eta beste erakunde batzuek beren ekimenez edo deialdi publiko baten baitan ikerketarako eremuak eskatzen dituztenean, eskariak ebaluatzea, eta Zentroko Kontseilu Betearazleari dagokion proposamena egitea.

b) Ikerketarako eremuen erabiltzaileen ibilbidea ebaluatzea, gunea erabiltzeko baimenaren epearen erdia igaro ondoren eta guztiz bukatzean.

2. Batzorde Ebaluatzailea ad-hoc izango da izendatua ebaluazio prozesu bakoitzerako.

3. Zentroko jarduerekin erlazionatutako arlo zientifikoetan garrantzia duten hiru kide izango ditu gutxienez eta zazpi gehienez. Aukeratutakoek ezin izango dute izan loturarik edo komuneko interesik ebaluatuko diren talde edo erakundeekin.

**Artículo.- 23 *[2]**

*Comisión Evaluadora*

1. La Comisión Evaluadora es un órgano de consulta para la evaluación, nombrado por la Comisión Ejecutiva del Centro. Tiene por función:

a) Evaluar las solicitudes de espacios destinados a Investigación, realizadas a iniciativa propia o en el marco de una convocatoria pública, por parte de los Institutos Universitarios de Investigación, estructuras y entidades universitarias sin personalidad jurídica (cátedras), Grupos de Investigación y otras entidades, y elevar una propuesta al Consejo Ejecutivo del Centro.

b) Evaluar la trayectoria de los usuarios de los espacios destinados a Investigación cuando trascurra la mitad del tiempo para el que se ha concedido la autorización de uso del espacio y al final de la misma.

2. La Comisión Evaluadora será nombrada ad-hoc para cada proceso de evaluación.

3. Estará integrada por un mínimo de tres y un máximo de siete personas con relevancia en los ámbitos científicos de actuación del Centro. Las personas elegidas en ningún caso mantendrán relación o tendrán intereses comunes con los grupos o entidades

---

[2] *Gipuzkoako Campuseko Batzarrak gehitua 2012ko urriaren 29ko bilkuran – Incorporado por la Junta de Campus de Gipuzkoa en su sesión de 29 de octubre de 2012.*

evaluadas.

4. Ez da ordainsaririk jasoko Batzorde Ebaluatzailea kide izateagatik.

4. El cargo de miembro de la Comisión Evaluadora no será remunerado.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehenengoa. Funts bibliografiko eta dokumentalak Gipuzkoako Campuseko Liburutegira eramatea**

Gipuzkoako Campuseko Fakultateetako eta Eskoletako langileak eta funts bibliografikoak eta dokumentalak Gipuzkoako Campuseko Liburutegira eramango dira, gaur egungo kokalekuetatik (Campuseko Fakultateak eta Eskolak, Villa Soroa, Villa Asuncion eta Ignacio Maria Barriola eraikina), Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskolakoak, Donostiako Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Irakasgunekoak, Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolakoak eta Gipuzkoako Campusean kokatuta dauden Ikerketa Institutuetakoak eta Katedretakoak izan ezik.

**Bigarrena. UPV/EHUk sortutako Ikerketa Institutuen eta katedren egoitzak**

2.1. *UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren mende dauden eraikinetan espazioak esleitzeko Arautegian* ezarritakoa kontuan hartuta eta xede horrekin 2010eko urriaren 11n Gipuzkoako Campuseko errektoreordeak ofizioz hartutako Ebazpenaren arabera, honako Ikerketa Institutu hauek egoitzaz aldatuko dira, Villa Soroatik eta Villa Asuncionetik Carlos Santamaría Zentrora:

**DISPOSICIONES TRANSITORIAS**

**Primera. Traslado de los fondos bibliográficos y documentales a la Biblioteca del Campus de Gipuzkoa**

A la Biblioteca del Campus de Gipuzkoa se trasladarán, de sus actuales dependencias en las Facultades y Escuelas, Villa Soroa, Villa Asunción e Ignacio Mª Barriola, el personal y los fondos bibliográficos y documentales de las Facultades y Escuelas del Campus de Gipuzkoa (excepto los de la E.U. de Enfermería de Donostia-San Sebastián, la Unidad Docente de la Facultad de Medicina y Odontología en Donostia-San Sebastián y la E.U. de Ingeniería Técnica Industrial del Eibar), y los de los Institutos Universitarios de Investigación y Cátedras ubicados en el mismo.

**Segunda. Sedes de Institutos Universitarios de Investigación y cátedras creadas por UPV/EHU**

2.1. En el marco de lo establecido en el "*Reglamento sobre asignación de espacios en edificios dependientes del Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa de UPV/EHU"*, y de acuerdo con la Resolución adoptada de oficio al efecto por la Vicerrectora de Campus de Gipuzkoa con fecha 11 de octubre de 2010, trasladarán su sede desde Villa Soroa y Villa Asunción al Centro Carlos Santamaría los siguientes Institutos Universitarios de Investigación:

(1) *Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC/KREI*).
*Kriminologiaren Euskal Institutuaren* egoitza berean egongo da *Delinkuentziaren, Marjinaltasunaren eta Gizarte Harremanen Nazioarteko Ikerkuntza Zentroa* ere, 1993ko otsailaren 17an UPV/EHUk eta Nazioarteko Kriminologia Elkarteak (Paris) izenpetu zuten Hitzarmenean hartu ziren konpromisoak direla-eta.
(2) *Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutua (ILCLI)*
(3) *Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua (GEZKI*)

(1) *Instituto Vasco de Criminología (IVAC/KREI*).
La sede el *Instituto Vasco de Criminología* albergará también el *Centro Internacional de Investigación sobre la Delincuencia, la Marginalidad y las Relaciones Sociales,* a raíz de los compromisos asumidos en virtud del Convenio firmado el 17 de febrero de 1993 entre UPV/EHU y la Sociedad Internacional de Criminología (París).
(2) *Instituto de Lógica, Cognición, Lenguaje e Información (ILCLI).*
(3) *Instituto de Derecho Cooperativo y Economía Social (GEZKI*).

2.2. Era berean, 2010eko urriaren 11n Gipuzkoako Campuseko errektoreordeak ofizioz hartutako Ebazpenaren arabera, *Miguel Sánchez-Mazas Katedra* ere egoitzaz aldatuko da, Villa Asuncionetik Carlos Santamaría Zentrora.
Azkenik, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2009ko azaroaren 19ko akordioaren bidez sortu den *Komunikazioa eta Hezkuntza Balioak Unesco Katedra*k ere Zentroan izango du egoitza.

2.2. Asimismo, de acuerdo con la Resolución adoptada de oficio al efecto por la Vicerrectora de Campus de Gipuzkoa con fecha 11 de octubre de 2010, trasladará su sede desde Villa Asunción al Centro Carlos Santamaría la *Cátedra Miguel Sánchez-Mazas*.
Finalmente, tendrá también su nueva sede en el Centro la *Cátedra Unesco de Comunicación y Valores Educativos*, creada recientemente mediante acuerdo del Consejo de Gobierno de UPV/EHU de 19 de noviembre de 2009.